

Goi-mailako joskintzako teknikak
Ikastaro presentziala
Erdi-maila

Brodatua

2026.05.19 — 22

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA



Erdi mailako ikastaro honetan, Lunéville metodoaren bidez eskuz brodatzeko goi joskintzako teknika espezializatuen prestakuntzan jarraitzea proposatuko da. Hastapeneko 1. mailako ikastaroan ikasitakoa sendotzea da asmoa, eta teknika berriak eta/edo puntada konplexuagoak ikastea, zeta opakuzko ehun gainean praktikatzuz. Prestakuntzak bereziki landuko du bolumetria eta testura ematen duten materialak eta hariak aplikatzea, hala nola feltroa eta Chenille haria.

HELBURUAK

Lunéville brodatuaren teknikak, horien aukerak eta erabilerak sendotzea eta zabaltzea.

Lunéville brodatuak ehun opaku gaineko prozesu osoan praktikatzea eta sortzea.

Brodatze-patroi bateko eskema interpretatzea eta berregitea, eta tridimentsionaltasuna ematen dituzten materialak eta hariak aplikatzea.

Metodoaren, keinuaren eta jarreraren zehaztasuna lantzea eta areagotzea, orobat brodatze teknika honetan eta beste batzuetan ahal den ongien brodatzeko kontzentrazioa eta diziplina, 1. mailako ikastaroan landutakoak baino teknika konplexuagoen bitartez.

PROGRAMA

1. jardunaldia	— Bastidorea muntatzea, zeta opakarekin — Ehunean lantzeko motiboa eta/edo patroia gauzatzea — Feltroa motiboaren gainean prestatzea eta aplikatzea — Beira-aleak motiboaren inguruan aplikatzea
2. jardunaldia	— Bolumena eratzeko, feltrozko geruza bikoitza aplikatzea — Alerik gabe jositako puntada praktikatzea — Chenille haria erabiltzearen hastapena — Chenillea «finkatzeko», metal-hariarekin puntada espezifikoak egiten ohitzea eta hori praktikatzea
3. jardunaldia	— Metal-kordoi kiribildu bat aplikatzea, jostura espezifikoak eta kotoi-hariz — Metal-hariz aleak aplikatzea, teknika eten bat erabiliz — Aleekin jositako puntada praktikatzea — Formadun feltroaren bolumenean, diagonalean jositako puntada praktikatzea, sortutako feltro-bolumenean
4. jardunaldia	— Motiboan tutuak aplikatzea, norabide orotan — Orratza erabiltzea, tanta-formako bolumena prestatzeko. Eratatutako bolumenaren gainean, brodatu tradizionala diagonalean aplikatzea — Brodatzean jardutea, orratz bidezko luma-puntada baliatuz — Aurreko egunetan landutako puntada guztiak berrikustea eta aplikatzea — Lanaren amaiera

Elisabeth Roulleau Gasbarre brodatzaile aditua da. Brodatu tradizionalaren eta goi joskintzaren artean trebatua Parisko École Lesage ospetsuan, brodatzaile profesional gisa egiten duen lana eta irakasle lana uztartzen ditu.

Parisko Atelier Cécile Henri-n egin zuen lan (Dior, Chanel eta Azzaro enpresen bildumetako sortze-lanak egiten). Gainera, hainbat herrialdetako diseinatzaile eta moda-enpresarekin egin du lan, hala nola Hermès, Chador, Alexis Mabilie, Impasse 13, Didit Hediprasetyo eta Francesca Fossati-rekin.

Irakasle gisa, Lyongo *atelier*rean eta mundu osoko moda-zentroetan irakasten du. 2010az geroztik, Londresko Central Saint Martinseko irakasle gonbidatua da, eta nazioarteko beste eskola entzutetsu batzuetan ere eman ditu eskolak. Hona horietako batzuk: Parsons School of Design (Paris, Frantzia), Institut Français de la Mode (Paris, Frantzia); Esmo (Paris, Frantzia); Head University of Art & Design (Geneva, Suitza); ArtEZ University (Arhem, Holanda); AMD Akademie Mode & Design (Dusseldorf eta Munich, Alemania); Istituto Europeo di Design (Bartzelona eta Madril, Espainia; Milan eta Turin, Italia); eta Cristóbal Balenciaga Museoan bertan.

www.elisabethroulleau.com



Lunéville metodoa erabiliz eskuz brodatzeko goi joskintzako teknika espezializatuen maila ertaineko ikastaroa, Elisabeth Roulleau Gasbarre brodatzaile adituaren eskutik. Prestakuntza hau 1. hastapen-mailako ikastaroaren jarraipen moduan eskaintzen da.

Datak	2026ko maiatzaren 19tik 22ra. Aurreikusitako dedikazioa, 28 ordu.
Ordutegia	10:00-13:00 / 14:00-18:00
Hizkuntza	Ikastaroa gaztelaniaz eta ingelesez emango da. Irakaslea frantsesa da, ondo daki ingelesez eta gaztelaniaz ezagutza ertaina du.
Parte-hartzaileak	Moda Diseinuko, Patroigintzako, Jantzigintzako, Arte Ederretako edo/ eta Diseinuko ikasle edo tituludunentzat, modako profesionalentzat, artistentzat eta goi joskintzako brodatze tekniketan trebatzeko interesa duen edonorentzat. Eta, zehazki, museoak eskainitako goi joskintzako tekniken hastapen-mailako ikastaroa burutu duten lagunentzat. Gehienez 12 parte-hartzaile izango dira. Eskatutako dokumentazioaren arabera hautatuko dira parte hartzaileak, eta martxoaren 15etik aurrera jakinaraziko da plazen esleipena.
Baldintzak	Nahitaez bete beharreko baldintza da museoak eskainitako goi joskintzako tekniken hastapen-mailako ikastaroa eginda izatea.
Izen-ematea	Izen ematea zabalik izango da ikastaroa argitaratzen den egunetik martxoaren 6ra arte (hori barne, Espainiako ordutegiko 14:00ak arte) eta interesdunek izena emateko inprimakia bete beharko dute online. Curriculum vitae-a aurkeztu beharko da eta, horretan, modaren arloko prestakuntza eta esperientzia zehaztuko dira. Halaber, motibazio-gutun bat egin beharko da, hautagaiak jardueran duen interesa eta haren edukiarekiko lotura azaltzeko. Osatu gabeko eta epez kanpo jasotako eskabideak kanpoan geratuko dira.

Prezioa	415€. Prezioan sartuta daude proposatutako ariketak egiteko beharrezko materialak, 55 euroko balioa dutenak. Museoak kit bat emango dio parte hartzaile bakoitzari, beharrezko material guztiekin: kotoi-haria, urre-haria, Chenille haria, metal-haria, goporrak, beira-aleak, lentejuelak, feltroa, eta brodatzeko beste apaingarri batzuk. <u>Parte-hartzaileek 1. ikastaroan emandako bastidorea eta Lunéville kakorratza ekarri eta erabili beharko dituzte.</u> * Cristobal Balenciaga Fundazioak jaso beharreko matrikularen prezioa lehen aipatutakoa da eta bankuko gastu guztiak parte-hartzaileak bere gain onartuko ditu. ** «Museoko lagunei» dagokien deskontua matrikula egiteko unean gutxienez 2 urteko antzintasuna duten lagunei soilik dagokie.
---------	---

Plaza mugatuak / Aldez aurretik izena eman behar da

Parte-hartzaileen gutxienerako kopururik lortzen ez bada, jarduera bertan behera gelditzen dela jakinaraziko zaie interesdun guztiei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokion kasuetan.

Amaitzean, jardueran parte hartu izanaren egiaztatzea emango da.

Harremanetarako	T +34 943 004 777 info@fbalenciaga.com
-----------------	---

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

